URRILLA
24
Eguena
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 irko. Iru llez
Bilbao'atazkua.. 11,25 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.123 zenbakija

Gayak

Euzkel-ixenak

Begoña'ko eŕtxadonan Auŕekoetxea'taŕ Josu eta Elosu'taŕ Imanole senaŕ-emazte abeŕtzale zintzuen alaba jayopaŕitxuba ugutzau dabe. Eta ugutzan Josune euzkel-ixen begikua ezaŕi dautsoe.

Emakume-Abeŕtzale - Batza'n Euzkadi-aldez lan-egiteko jayo dan neskatxu txiki au besuetan aŕtu ixan dabenak, Elosu'taŕ Eukeni ta Palacios'taŕ Aguŕtzane ixan dira. Zorijonak.

Basauri'n

Basauri'ko Fausta deunaren eŕtxadonan be, beste neskatxu jayopaŕitxu bat ugutzau dabe: Uribe auzuneko Azkuenaga'taŕ Augustin eta Bustintza'taŕ Eskaŕne senaŕ-emazte jeltzalien alabatxuba.

Eta ugutzan, oneri be, Terese euzkel-ixen poliŧa ezaŕi dautsoe. Aŧabitxi-amabitxijak, Zarandona'taŕ Andoni ŧa Azkuenaga'taŕ Jeronime ixan ziran. Zorijonak gustijoi, ŧa a au be Emakume Abeŕtzale-Batza'n Euzkadi-aldez lan-egiteko azten dozuben.

Gallastegi'tar Eukeni

Galastegi'taŕ Eukeni irukoiztaŕ lekaide aguŕgaŕija ixan da. Elorio'ko semia Beŕi-otxoa'taŕ Balendin zorundunaren eŕikidia.

Lekaide aguŕgaŕijau, baña, lengo egun baten, Roma'n il da. 1860'gko. iralan 4 'gaŕenan jayo zan, eta 1878'gko. azilan 16'gaŕenan, Roma'n lekaidetu. Il danian 75 urte ixan dauz. (G. B.)

¡Erein, erein..!

Bilbao'ko "La Gaceta del Norte" atsotxu zaŕ min-luze eragotzaliak, Azaña'ren azkenengo "diskurtzoa" zijotzat aŕtuta, eragote-azija ereien diñaŕdu.

¡Erein, erein, zuk, atsotxu, zuk goŕoto-bidez ereŕen dozun azi oŕen zabalgundia, Azaña'ren ixena ta entzutia geŧuteko ixango dira-ta...

¡Ekin, ba, ekin, atsotxuba, zuk, Azaña janzki goŕi apañakaz eta abaŕ maŕgoztuten, zabalgundia egiteko biderik egokijena orixe dozu ixan be-ta...

Oŕelako maŕazkijak egiten ibili baño, "La Gaceta" atso zaŕtxu baŕitsu oŕek, pipa-kondua biztuta supasteŕtxuban tabakoŕija eŕe ta keya edatuten ibiliŧa, ¿oba eze-ete-leuke, gero...?

Ras Gugsa

Ras Gugsa abeŕi-etoya, etiopataŕen abeŕi-janzki berezijetatik erantziŧa, europa-erara jantziŧa ikusi dogu.

Europa-erako janzkidun argazki au, "La Gaceta" atxotxu auŕpegi-tximuŕak erakutsi dausku.

"Lebiŧadun obisporik" iñoz be etxaku begiko ixan, ezta praŀe-janzkijetatik erantziŧa, benetako endeŕijaren kaltez gudea egiteko auzoko areyuakin batera gudari-janzkiz janzten danik be. "Lebiŧadun obispua" ta gudari janzten da pralia, txiña-erara janztziko ba'lira be, ezagunak ixango dira.

Beraz europa-erara jantziŧa "La Gaceta" atxotxu baŕitsubak erakutsi ixan dauskun ras Gugsa argazki au be, iguin ixan yaku. Azketsi "andra Gacetatxu".

Nasteruak

Oneik "Vascongaduetako Derechas Autónomas" euzkeltzalioik eta "vascongaduen" eskubide-zalioik, euzkotaŕoik eta gaztelaŕak ora bateko opilak bai-liran, alkaŕaz nastau guran yabiltzuz beti.

Eta eskeŕeko begijaz eskumakua ikusi ezin daben g i x a g a x o oŕeik eztakije, euzkotaŕak gaztelaŕakin nastetan ibiliŧe ori, gaimela edo orijuaz ura nastetan ibiliŧa baño zalagua ta gatxagua danik.

"Derecha Autónoma" edo diralako oŕeik, gixagaxo aundi batzuk dirala esan-ezkero, gustija dago esanda... "Amaika demoniño, bost pare ta erdi...!"

Galdakano'n

Datoŕen igandian, ila onen 27'gaŕenan, Galdakano'n euzko-jai aundija ixango da.

Goxeko bederatziretan txistularijen kale-bireak. Amaŕetan, jaupa abestuba. Amaiketan, Zine-aretuan, euzko-jai ospetsuba. Ordubatetan, oturuntza. Aŕatsaldeko iruretan, Eresbatzaen biribilketeak. Iru ta erdijetan, itzaldijak. Ona emen izlarijak:

Gabilondo anederñua ("Maŕe" euzkel-idazle azkaŕa).

Kazaña'taŕ Joseba Mirena.

"Altzeta" eta

Agiŕe'taŕ Joseba Andoni, alduna.

Gero Aŕana-Goiri'ren enparantzan, euzko-eŕomeri aundija.

Egiŧarau poliŧa, ¿ezta irakuŕle? Beraz igandian, Galdakano'ra...

Euzko-Gastedija'n

Datoŕen barikuban, ila onen 25'kaŕenan, Bilbao'ko Euzko-Gastedija'n itzaldi abeŕkoi bat ixango da.

Izlarija ezaguna dogu: Urkiaga'taŕ Estepan "Lauaxeta" oleŕkari aipatuba.

Itzaldijaren gaya be ezagun egiten yaku: 1839'gko. uŕilan 25'kaŕeneko lagijatzaz iñarduko da-ta. Beraz, gaŕantzizko itzaldija ixango da.

Gabeko zortziretan asiko da, bai, ŧa al dozubenok eldutxu bat egin barik ez geratu.

URIBIŦAŔTE'TAŔ IBON.

Antzezkixunak

Antzezkixun edeŕak ikusi doguz geure uritxuban eta ezingo gintzakez egon euŕetzaz zeozertxu esango ezpagendu.

Ezta baña geure ustia atso baŕitxuben antzera gauza bat, jazokunde bat naŧa negaŕgaŕija edo baŕegaŕija ixan atxaki bat euki ezkero baŕiketan egiteko nabaitzen dan poza, ez. Ezta gure gogua baŕiketarako. Ezkenduke gurako iñoz eukiterik be, baña gauŕ iñoz baño gitxijago. Geure Batzokijan egin ixan zan antzezkixunaren goralbenak egiteko gurea dogu. Eztakit al-ixango dodan antzezgiliak irabaziŧako neuŕijan goraldu.

Enaz oŕ geratuko. Neuk, idaztian eurak goraltzeko gogorik ba'dot, onáaŕutaŕ irakuŕliak be egija ezautubaz, berekautan, bardin goralduko dauz, antzezlarijak lez antzezgiliak be, igandian be txalo-otsean eskubak apuŕtu-biaŕian eguan-eta.

Ezin lei ziñeztu be egin Batzoki'ko txaki zabal gustija bete-bete eien eban notintzearen poza, alaŕasuna, itzala, baŕia ta negaŕa, antzeztijen edeŕtasuna ta abeŕtzaletasun bardiñeza ikustian.

Eta adi-adi nenguan antzeztiñuen edeŕtasuna ezeze notintzearen arpegijen ziñu gozo-gaŕatzak, bigun eta gogoŕak eben edeŕtasunari.

Sota'taŕ Imanol antzezgile andijaren "Itxaro-Ixaŕa„'k asikeran dauzan gauza bakanak Sota berberarenak dira, bere buru-iŧuŕi aberatsean soŕtzen diran itz eta azalpen jakingaŕijak Altuna'taŕ Joseba'k idatziŧako bizkayera zoragaŕijan entzueran geure aŕantzalien adimenen zoŕoztasunari begira nenguan. Etxaken txipitxik be igesten. Ez orixe!

Eta euren artegatasuna Euzkadi'tik uŕun dagozan Kirtsanda ta Txo euzko-aŕantzale gixajoen eskutapenak jakin aŕte keskatsuba ixan zan, Kirtsanda'k etxeko idazkija aŕtueran dauan izpaŕean negaŕari emoteko.

Ixan be, bijotzdunentzat jayotako antzezgilia dogu Sota.

Antzeztiñuau antzeztu eben atzezlarijak be gero etziran alalakuak! Ain ondo egin eben...!

"Uŕetxindoŕa" be "Itxaro-Ixaŕa"-ren egile berberak egiña da. Lenengoz ikusi neban antzezkixunau edeŕa eretxi jatan, baña antzeztu ebenak be ezeben akatzik ixan eta "primeran" urten zan.

Irugaŕen antzeztiñua "Ilobearen indaŕa" ixan zan. Berau, erderaz esaten dan lez, "plato fuerte" ko-edo emon euskuben. Eta "plato fuerte" ori gustijoen atzegiñezkua ixan zan.

Gu euzkotaŕok, eta saŕitxu entzun dogu berau, jatun andijak ei'gara. Geyago oindiño. Asko jatiak geure urdalak be, itxuraz, gogoŕtuta ei'dagoz ta ori dala-ta janari senduak ixaten yakuz atsegin.

"Ilobearen indaŕa" oŕegaŧik jauŕtiko euskuben "plato fuertetzat". Uste oŕegaz ete-zan? Olan ixan ba'zan, okeŕ urten eutsen eratzaliei. Esango dogu zegaŧik.

"Ilobearen indaŕa" janari sendua da, bai. Baña gogozko janarija. Eta geure bijotzat andijak ixanagaŧik ezin eutsi eben "Ilobearen indaŕa". Ezin ziñeztu lei gixonak olako lanik egin leŧekenik. Gure bijotzak ase-ase-eginda geratu ziran ilobearen indaŕak aŕiŧaren bijotzetik atara eban maŕasunagaz.

Eztogu geyago esan gura antzezkixun onetzaz. Bakaŕik, Aŕteta euzkel-idazle argijak egiña dala, eta "geure" "Arteta" esaten ezin gindekezala lotsatu.

Egiliakaŧik ezer bere ezin lei esan, ba, Oldazne ondo egon ba'zan, bere lez ondo egin eben Domeke'k eta Garbiñe'k eta beste gustijak be bardin ondo bete eben euren zeregiña. ¿Zer geyago esan?

Ikusle gustijak abeŕtzaletasun-egaŕi ba'ziran, ondo be ondo asetu ziran antzezkixun onegaz ta Sota'ren bijekaz.

Iru antzeztiñu edeŕ ta abeŕtzaletasun geyagokorik ezin lez eŕaz aukeratu antzerki-jai baten emoteko.

Edozelan be eraltzaliak jai edeŕa eraldu euskuben eta zorijontzeko gagoz.

Ointxe ziñeztuten dogu geuk entzunda daukaguna. Ainbeste antzezkixun emongo ei'dabez aurten gure uriko Batzokija'n eta zorijoneko gagoz, ba, bai-dakigu oraiñ jai edeŕak emoteko añeko eraltzaliak eta antzezlarijak daukaguzala-ta.

Igandian ikusi genduban ondo.

AŔTIBAI.

Muni umearen eriotza

> "Ramayana" izena duan liburuan idatzita dago. Liburu au Valmiki jakintsu bakarzaleak idatzia da eta Sorkaldeko elertirik edeŕena. Liburu deuna, indotaŕ uritasuñaren edertasun eta jakinduriaz betea. Iñoiz-ez - iñoiz ñungo elertiak ez ditu ain itz ikutugaŕiak eta bigunak erabili, ume baten eriotza negartzeko." — A. Rodríguez. "Flor de Leyendas".

Rama, India'ko bakaldunen seme edeŕ eta dizdiratsua, bere ugazamaren gaiztakeriagaitik, etxetik at bialdu du aitak, Dandaka izena duan basoan bizi izatera.

Bere aita Dasaratha'k ber-berak agindu du Rama erbesteratzea.

Baña, Rama'k bere abeŕia utzi zuanetik, Dasaratha eŕegearen gogoa ilun dago, eta beti negaŕ mingotza dario begietatik, bere seme edeŕaren oroimenaz.

Bost egunetan egin zuan negaŕ, argitan eta ilunpean. Seigaŕen egunean eŕegea gaberdian negaŕez zegoalarik, bere gastearoan egindako gaiztakeri bat gogoratu zitzayon eta jaungoikoak beragaitik zigortzen zutela igeŕi zuan.

Baita ere bere biotzean nabaitu bere seme, Rama edeŕa, iñoiz geyago ikusi gabe il beaŕko zuala.

Eta onelaxe itz egin zion ilunpean bere emazte Kausalya eŕegiñari: Entzun egizuz zintzo eta aŕetaz nere itzak, ene emazte maitea.

Denbora juan eta denbora etoŕi, gizonak egiten ditugun egite on edo txaŕen ondorenak geuk jaso beaŕko ditugu naita-naiez.

Orain ikutzen ditut nik beste denbora batean, aintziñako denboretan egin nuan gauza txaŕ baten ondorenak. Auxegaitik, zoriak itxututa bialdu det abeŕitik at Rama, neure seme kutuna, nere begiak iñoiz geyago ikusiko ez duten seme edeŕa. Entzun egidazu, ene Kausalya!

Beste aldi batean, gaztea nintzanean eta pletxak uŕutira jaurtiten yayua, dongakeri aundi bat egiña nazu.

Ez nŕan jakiñen gañean egin, ezjakiñean baizik, ezaguera gabe beneno bat edaten duan ume batek bezela.

Oraindik etziñan zu eskonŭu, eta ni ez nintzan eŕege, eŕegegai baizik.

Euri beroen sasoya zan; intza edanaz eta luŕa berotuaz, eguzkia, Ipaŕaldera egin oi duan juan-etoŕitik zetoŕen sasoya. Amiamokoak (1) eta eŕege paboak poztutzen ziran; ibayak gañez zegiten, eta luŕak beŕiz diz-diz zegian belaŕ orlegiz jantzirik.

Egun batean, pletxa mordo bi bizkaŕean eta arkoa eskuan nitualarik, Sarayu ibai ertzera jo ruan, gabaz ura edatera jatxi oi diran buŕalo edo elefanteren bat edo beste erailtzeko asmoz.

Iluna zan gaba, nere begiak ez zuten ezer ikusten, baña nere belaŕiak ibayaren andiko aldetik ituŕian betetzen ari zan, pitxaŕ baten soñua entzun zuten. Soñu ura ordea, elefante baten oŕoa iruditu zitzaidan neri.

Onela, zoriak itxututa eta atxipetuta, artu nuan pletxa zofotz bat, ipiñi nuan arkoan eta bialdu nuan zuzen-zuzen, ur soñua zetoŕen lekura.

Pletxa jaurti nuanaz batera, ume baten abotz ituna entzun nuan, auxe zezana:

—Ay ene jaungoikoak, nereak egin du! Nor gizon gaiztok bialdu du nere aurka pletxa zofotz au? Zer gaitz egin dizut nik, ene ezezagun ori! gabaren bakardadean, ibaira pitxaŕa bete uren bila etoŕiaz?

Iru eŕugabe erail ditu zure pletxa zoŕotzak, nere eriotzaren naigabeak ilko ditualako nere aita, Muni itxua, basoaren bakardadean otoitz egiten bizi dan bakarzale jakintsua eta neure ama, neu gabe ez bata ta ez bestea ezin bizi izango dira ta.

AŔITOKIETA.

(Daŕaike.)

(1) Las garzas.

Euzkeldun barrien lanak

Emakumea gizartean

Gixaldiaren asieran, gizonak euren egunerako ogia lortuteko, artzaintzan; nekazaritzan ta eizan iñarduen. Gizonak menŕirik mendi ta basorik baso ebiltzan bitartian, emakumiak etxeko zeregiñetara lotuta egozan. Eurentzat izaten ziran lanik gogoŕenak eta neketsuenak. Eskontzan be etzan bizi emaste lez, gizonaren menpean otseña lez baño.

Garai aretan emakumia zelan bizi zan ikusi dagigun, ara Eurípides antzerkigile ospetzuak emakume baten aboan zelako itzak imiñi ebazan: "Bizidun gustien artian emakumia da zoritzaŕekoena ta eŕukaŕiena".

Goizpaŕ-argiz ludi gustian zabaldu zanian, emakumiaren egoera obetu zan, goizpaŕaren auŕian eta Jaungoikuaren auŕian gizonak eta emakumeak bardiñak ziralako; aŕezkero emakumia azke geratu zan. Goizpaŕ-irakastiak asaŕe bizia erakusten dau emakumearen jopu-egoera onen aurka. Emakumiaren kaltez ludion zabaldu diran astakerijak beronek atzindu dauz.

Alan ta gusti bere, emakumiak gizonaren menpian jaŕai eban. Laterien agintean ez eukan ezetariko sartu-emonik. Emakumia, bardingetasun au ikusirik, gizonaren eskubideak beraganatzeko lanean asi zan eta gaur, orain arte gizonak bereberak lez izan dabezan eskubide ta zibideak, emakumiak beraganatu dauz. Eta bizibide azkotan gizona garaitu dau.

Gizon-emakumiak biarkun-eskubidietan bardiñak izan leitekezala ikusi dagizuen, Eŕusian oraintsu neure adiskide batek ikusija agirian imiñiko dautzuet: Adiskide au bein Eŕusa'ra yoan zan; Mosku'ko txaide ziaŕ yoyala gauza bakan bat ikusi eban. Gudari bi yoyazan bere auŕean eta bata bestea laztantzen eban. Neure adiskidea, aŕituta, uŕeratu yaken eta aŕitasun oŕek ez eban neuŕirik izan gudari bietako bat emakumia zala ikusirik.

Emakumia baña ezta gudarako yayo. Gaurko gizartian emakumiak beste zeregin edeŕak daukoz. Biguntasunez, maitetasunez eta edeŕtasunez giza-zauriak osatu, geure eŕi gogua edertu eta ekanduak garbitu beaŕ dauz eta Jaungoikuaren bilduŕean semeak ezi. Euzkadi'n batez bere eginbeaŕ edeŕa dauko: Euskerea zabaldu ta edertu. Euskerea geure zabarkeriz baztertuta dago. Gizon ospetsu ta zintzo batek esan eban: "Bere izkuntza galdu dauen eŕiak, gogoa galdu dau". Oŕegaitik Euzkadi'ren berpizkundea ikusi gura ba dogu, geure lenengo eginbeaŕa euskerea landutea da.

Onetara zabaldu geinke mundu gstitian gure eŕiaren izena.

ANDEREÑO BATEK. (1)

(Bilbao'ko Instituto'ko irugaŕen ikastoroko ikaslea.)

(1) Andereño, ikasle batek idazteko, txukunegi be ba-dago zure gauŕko idazki au. Eztautsagu ukuturik egin. Alan eta gusti be, "s" biaŕ dan lekuban "z"-ren bat edo beste ixan ezik, auŕpegija goŕiŧuko leuskixun akatz askorik ezin aurpegiratu ixango geunskixu.

EUZKADI'ren berpizkundia ikusi gura ba-dogu, geure lenengo eginbeaŕa euskerea landutea da"—diñozu. Edeŕto esana, orixe, "Andereño". Zuzen zagoz. Zorijonak, eta jaŕatu.—I.

Ludi-Ziar

Ekintza

Egin? Biŕinḋu? Sortu? Auts-egin? Eztago ardurarik. Geldik egon ezik...!

Auxe da ludiko gaurko berezitasuna. Geratu barik ibili, ezkeŕetara edo eskumatara, onez edo txaŕez, zuzen bidian edo okeŕian. Baña ibili, ekin atseden barik, beti keskati, urduri, joranez...!

Gixon gelberak, makalak, koldartijak eztira gaurko egoki; saspiki ta urdurijak dira nagusi.

Laterí gustijen ikuŕiñetan, alderdi oroen elburuetan; agintarijen espanetan menpekoen agin taŕtian lez: ogasunez putsutatako aberats zabal ta nasayaren jardun eta itzaldi baretsuetan eta gosiak eta lanak eta sendiko keskak zurbildu, leŕ-egin eta aŕakalau daben langile bijoztunaren jardunaldi bero, keskatsu ta gogoŕetan; mendijetako baso zabaletan eguzkijaren bero galda gordiñekaz ixerdi lapatsetan atxuŕari ekin ta ekin daragoyon baseŕiŧaŕen espanetan eta itxasoaren asaŕaldi gogoŕ ta zaratatsubei auŕe emonaz egunoroko ogija itxaso oŕen gibeletik ŧrabazi ezin daben aŕantzale lerden eta axe zakaŕez goŕiŧutako bulaŕ goŕidunen espanetan; ogasunen keska barik, zaratatsu ta aundikiro gau nagijak lixun jayetan igaroten dabezan gaste gexo aberatsak, eta zoritxaŕari gibel egin eziñez bijotz bakoen iguingaŕi ta naskagaŕi kalerik-kale, etxe gustijak zearkatuaz, ate gustijetan bilduŕti ta negaŕka deyez dabilan agura zar jausija, edo maiŧasunez zoratuta bere semetxu gosekilarentzat maiŧasunaŕen ogi eske aŕenka dabilen emakume txatxaŕak; eta aŕokeriz andiŧuta, iñori ostuta ixanaŕen be, euren amesen luŕak indaŕez bereganatu gura dabezan lateŕi edo estadu amestijak, eta euren luŕak aldeztutiaŕen erijotzara aurkestuten diran bijotz jori guriḋun baltz senduak eztarabile beste itzik, beste elbururik ekintzea baño.

Ekintzarako bide ta lagunak? Eztira arduragaŕi. Ekin eskeroz...!

Erdel idazle bigun ta entzutetsu baten ipuin poliŧa gogoratzen yat saŕi. Castilla'ko uritxu baten emakume aberats bat bixi ei zan, edestuten dau idzalde aipatuak. Aberastasunaren lepoz, edeŕtasun zoragaŕi batek begiragaŕi egiten ei eban; bere alaiŧasun bixijak ortzargi; itz-jario laban eta eztitsuak atsegingaŕi, ixate legun eta apalak gustijen adizkide, ere bijotz zindo ta leratsuak maiŧagaŕi. Baña edestiko emakume ori arinkeri batek jota ebilan, ames batek zurbilduta; zorotasun batek erabilan: dantza zorotasunak. Aste osua laŕi ta keskatsu igaroten ei eban igandeari itxaroten; eta igande aŕatsaldian orduak luze eritxiŧa urduri egoten ei zan eŕiko enparantza edo dantza lekuan soñua noiz entzungo. Eta soñu eresija asijagaz batera gure emakumiak joranez eta sutsu ekiten ei eutson dantzeari, lenengoz idoroten eban mutilagaz ekin be. Adizkidiak, zorotasun au txartetsiŧa, arpegira esan eta adierazoten eutsoen: Adizkide; aberats zara, edeŕ, ortzargi ta maiŧagaŕi; mutil eskel, txakil, argal, tentel eta txiro oneikaz etzenduke jolastu biaŕ; gorago jo bear zeunke; zeure ixate ta jatoŕijari begiratu biaŕ zeunskijo... Baña emakume arin ta dantza zaliak arpegiko iŕibaŕe gozo ta eztitsurik galdu barik erantzuten ei eban: Eta zer niri? Dantzan egin eskeroz...!

Ludijaren antzirudi zuzena dogu Castilla'ko emakume lerdenau. Ames ta arinkeri bat ludijaren jaube: Ekintzea. Ekintzarako bide ta lagunak? Edozein ta edonortzuk. Ekin eskeroz...!

Eta ekintza zaletasunau bide jazokunik aŕigaŕijenak ikusi daruaguz, nasterik gogoŕenak susmau; gixonen aŕtian zaletasun ta elburu ugari ta alkaŕtu eziñenak uartu. Batzuek zuzen duaz: bestiak okeŕetik jokatzen dabe; arantzagokuak okeŕago. Eta gixonak, euren zaletasun onen menpeko, euren arinkerijaren otsein, euren ekintza-zaletasunaren jopu, gudeak egiten dabez; indaŕtsuak makalak menperatuten dabez, aberatsak txiro edo beartsuak zapaldu, ugazabak langiliei ler-eragin, andijak txikija oinperatu. Baña ez luzaroko. Makalen eta txiro edo beartsuen eta langilien eta txikijen ekintza-miñak be noizpein garaituko dabe. Eta gaurko indaŕtsuak makal bijurtuko dira, aberatsak txiro, ugazabak langile, andijak txiki. Eta onek bere ez luzaroko. Ekintzeak laster eragingo dau baŕiro be aldaketea. Eta aldatuak len baño ziŧalago, okeŕago, gaiztuago jaŕaiŧuko dabe. Gixonen aŕteko beŕekintza gustijak, beŕ-jagipen oro okeŕak ixaten dira; okeŕegi. Aulan indaŕ aginŧaritza bateri naste ta anarkijak jaŕaiŧuten dautsela ikusten dogu; erabat Eŕti, Jakintza eta abaŕetan bakotxari yagokozan berezitasunetan.

Gixatasuna eztago lo egiteko. Makiñen indaŕak gixonen ixatietan be indaŕ egin dabela esan leike. Gixonen lotsagaŕi litxake ixan be berak asmau, sortu, moldatu ta egiñiko ixaki batzuk berari gain egiŧia; ixaki oŕen menpian beratuta eta kikilduta egon ta bixi biaŕ ixatia.

Gixonaren ixatiaren beragaŕi litxake bere ekintzeak eralduriko makiñearen ekintzeak gixatasunaren ekintzea menperatu ta beregain agertzia.

Ekintzea biaŕ biaŕezko da. Nai ta naiezko. Baña geure ekintzak zuzenduten ikasi biaŕian gara, bide zuzenez jokatu al ixateko.

Zetarako gura bestela ekintzea geure kaŕegaŕi ixango ba da?

ARTETA.

Olderasuen ludija

UAŔA. Aŕugain argijak "La Gaceta del Norte" izpaŕingijan idatzirikua pozez ta atsegiñez irakuŕi dot. Gayok eztira mingaŕi, pozkaŕi baño. Dana dala Zabala-Arana'k bere buruba aldeztuta garbiŧuko dau; nik neuria aldeztu dagidan, aldezteko ba'da. Lenengo "olderasuen ludija" ixenpurubaz erderazko "el mundo de los sugestionados" ikuŕtu gura ixan dot; ondo ala txaŕto datzi dodan eztakit, irakuŕliak ikusi begi.

"Olderaso" itza dala-ta: nire ustez "eraso" ta "erazo", "arazo", edo "arazi" bat dira; itxoŕkun batekuak dirala diru-di. Neure aburu au aldeztuteko ikuŕpen oñaŕija dot oñaŕi. ¿Zer ḋirala "eraso" ta "erazo"? Lenengo-lenengoko ḋiditz bi onein ikuŕpena "zelako edo alako igikuna dirudi": ori oŕetara zalakotan baŕdin eretxi leutsodan "olderazo" edo "olderaso" idaztiari. Ni ustia, egizko ustia eztala erakusten ba'dauste nire eretxitxuba zuzenduteko oindixek gertu-gertu nago. Pozaŕen zuzenduko dot neure okeŕa. Okeŕtutia, edo obeto, okeŕ ibiliŧa gixonarena da; ta okeŕa ezaguturikuan zuzenŭtia be bai. Eskaŕik asko, "Aŕugain" adizkide. Nire ustia auxe ixan "olderaso" itz baŕija zala-ta; "olde" = voluntad, deseo; "eraso" edo "erazo", mover; erderazko "sugestión" itza bide-dala ("causa pro effecto" jaŕiŧa, saŕiŧan jazoten dan letz) auxe ikuŕtuten dogu, "oldia" edo "borondotia aldatu" edo "igiŧu" egiten yakula, eta oŕtik "olde-eraso" = mover edo cambiar la voluntad. Bai-dakit, oldia edo borondatia aldatzeko ("guramena" (facultad de querer) ezta aldatzen, "mena" edo "facultad" dalako) "oldozkuna" edo "oldozmeneko" egikuna aldatzen dala; au beti jazoten da gixonaren adimenean; "olderaso" edo "oldaso" itz oŕegaz baña "ultimum effectum" adirazotia gura ixan dot: eta atzenengo "effectum" ori atzalduteko "eraso" itzan idoroten "igikun" ikuŕpena baño ¿obarik bai-ete?

Orain beste atzalbena be ekaŕi al-dot: "olde-erazo", berez eta lenengoz = "hacer querer" da, ta "sugestión" edo dalakuak "olde-erazo" edo "hacer querer" egiten dausku atzenengoz: orixe be bai-da "sugestión" dalakuaren "ultimum effectum". Oŕetara be ondo legoke itz ori, eta ondo deritxot. Nire zijuen gora-berea ondo uleŕtu dozulakotan uaz, "Aŕugain" adizkide.

* * *

"Olderasmena", ¿zer edo-da? "Olderasmena" "sugestión, habilidad" dozu, irakuŕle. Olderasmena zer dan jakiteko "olderasua" aztertutia baño eztogu: olderasua atetiko zegozek igiŧu lei; atetiko igikun ori edo atetik bertatik edo noberagandik etoŕi lei (Emen gura eztogula gogiztilarijen species impressa ta species expressa aipatu doguz; oneik oldozkunak zelan soŕtuten diran atzalduteko dira; eztira baña "aŧetiko" ta "baŕutiko gauzea"; ezkaŕezan nastau). Atetik ba'datoŕ olderasua da; baŕutik ba'datoŕ "buru-olderasua" da. Atetiko ta baŕutiko oldozkai oŕeik ("oldozkai" = species; ¿ondo ete-dago, jaunak?) lenen-lenengo oldozmena ikutzen dabe, ta oldozmenaren bidez oldozkuna soŕtuten da; oldozkunak, soŕturikuan, guramena ikutu ta igiŧuten dau; olderasuak alde onetatik be biŧarikuak dira: adimen-olderasuak, eta guramen-olderasuak.

Olderasuak eta buru-olderasuak biŧarikuak ei-dira: 1) batzuk gexuak; 2) bestetzuk "erigiak". Oneik areik baño olderasmen geyago dabe.

Olderasmena, "soŕburuz" gixonatzaz atetikua da geyenetan; gixonagan "amaŕuten" da baña. ¿Olderasmena adimenekua ala adimeneko ta gurameneko igikuna da beti?

AGAREL.

ERRIJETATIK

MENDATA

KESTORIA ETA "EKONOMIJA" Gure eŕiko udal-ixuna au saŕtuta lasteŕ-lasteŕ bere asmu ta lana eŕiko auŕeratze edo "ekonomija" eban eta oŕetarako ¿zer egin ebala uste dozu...? Ara, ba, auxe egin eban. Igandeta jai-oro eŕiko zelayan gastedijai olgetako txistularijai oŕdainduten eutsan sarija kendu eta gañera jolas edo eŕomerija ori galerazo. Bigaŕen eŕiko elexalde ontan geban tximis-argi bat eta argi oŕen ordaindutia be ukatu. Gustijau eŕiko auŕeratze edo "ekonomija„'rako.

Au gustijau olantxe dala Deun Mikel irugaŕenian ¿bai-dakixu zer egin zan...? Ba, ekonomija nagosi bat egin zan, eŕiko zelayan abere-demak jaŕi ebazan kestora oŕek; indaŕketa oŕetan, saritzat, beŕeun da beŕogetamaŕ laueŕleko emon ebazan, eta beste ainbeste baño geitxuago neuŕketarako baketzu ta alai-jolastuten zanai "ekonomijarako" kendu gustijon onerako ixan zan argija kendu. Eta eŕirako omurerik koskoŕenik eztakaŕan eta drogia ta kuŕukia baño eztakaŕan probak jaŕteko ija anei (mil) laueŕleko emon. Aurixe, bai, ba-dala benetako ekonomija eta benetako eŕi zuzendaŕija ixatia.

Deun Iñaki egunez eŕi gastedijak Zaindarijaren eguna ospatuteko "eŕomerija" baketsu ta alai bat egin gura eban eta kestoriak ogeta bosten bat gaste egozanai pilo andija eŕitxiŧa (rebolusiñoen) bat urten ezegijan galerazo-egin eban eta bai "txindoŕ" bat baxen eŕugia zan Zubizaŕeta'taŕ Joseba gaste zintzua guzuŕ salantzatu eta espetxeratu eban, eta gauŕ be espetxian dago. (1)

Eta Deun Mikel irugaŕenez "probetako" nastian oztetza andija egon eta didaŕ asko ta ugarijak entzun ebazan aŕen, (eŕebolusiño) bildufik ezeban ixan. Bildots etzan eta eŕugia otso amuŕatutzat aŕtu dabe, eta otso donge ta gaiztuak apaltzat. Eŕiko bakia eta zuzentaŕa daben gixontxuak eidira onek. Zeuk neurtuten dozun neuŕijagaz ixango zara zeu be...

ERIJOTZA.—Igaro dan astian deunak aŕtuta Goikua'ren besoetaŕa Goŕoño'taŕ Lon Abeŕtzale zintzotia (G. B.). Laguntzen dautsagu bian bere guraso eta anai aŕebaŕ.

ZUBIZAŔETA'TAŔ JOSEBA TUTERA. — Datoŕen ilaren Deun Gustijen egunian Bilbao'ko ga espetxera juan gura dabenak abeŕtzale gastia ikeŕtuten belbil bat egongo da eŕi onetatik, eta ra dabenak ila onen ogeta saspiŕi dagijala bayetza Batzokijan. ¡Ikegun eŕuge espetxian dogun anayaGASTE-B.

(1) Eŕu bakuak espetxian saŕtzan aginŧarjak, goiz edo berandu ixan daun saŕija aŕtuko dau. Eta ezeskarija da goŕotuak geyago dautsan aginŧarija. Eŕu bakuen ostera, ŭonokija da, Josu-Kisto'tako jaŕaitzaliak diralako. Beraz zaŕeta'taŕ Joseba espetxetuba, bateko "Baŕabas" espetxetik azkaño Josu'ren uŕago aurkitzen dtxubei ez ixan, ba, goŕ-torik, eŕaño. ¡Gixagaxotxubak...!—I

ARETXABALETA

ITZALDI ABERKOYA.—Il 'ean, Jaungoikuak lagun, gure -Etxea'n itzaldi bikain eta beizango da. Gure agintariak ikusigomutagaŕi onen baŕi erakutsi beŕela, batezaz ere gaurko egunetadu itzaldi au eta ez nolanaikea. Iortako erakuskisunak gure auŕetzeko dakarski izlari treta ospatu

"Euzko-Zale". a i n b a t ezag"Euzko-Zale" itz bere ta sakozenduko da eŕi ontako abeŕtzalekaltzaleagana. Beren itzalŭia gaizango da:

1. Uril 25'teko uŕteuŕena.
2. Euzkera izkuntzaren abera
3. Euzkotaŕen egintza lenengo

Nork ukatuko du, gaurko egaldi onek duan gaŕantzia?

Egun oŕetan Madrid'en sortu gure Abendaren aurkakoa zan benetan maite degunok gure AbEUZKADI beartuak gaude itzaljuateko. Bertan lege onen beŕi doren, ageŕtuko digu "Euzkaltzaltsuak gure Euzkera gaxoaren sunak.

Gure deya zabaltzen degu Abeŕtzaleai, baita ere gure gaŕbizi zan aŕen, jakin nai duenai kuntza eta Abendaren baŕi. Garbi asko azaldŭuko digu gure tzale" biotzekoak.

Kendu dezagun gure alpertasunok bat egiñik jun gaitezen Eu'ra, gure Abeŕtzaletasuna ta Eutasuna sendotzeko.

¡Danok ostiralean, iluntziko erdietan Euzko-Etxe'ra!

BATZO

Uaŕa.—Uŕenguan idazten dnian, idazte'o dozuben tramadalako oŕi, garbi-aldi bat emon aŕen, eskuz idatziŧa baño mila kuŕi-zalago ikusten dogu-ta. Idijak, zurijan; enparaukuak, azketsi, era gustijetako izkijak aŕa dogun gixagaxuoi eŕuki ixan dagiguzuben diñogu-ta.—I.

LEKEITIO

AŔANTZUA.—Juan dan astiekaŕi dabe egaluzia. Baña bai du dana! Ija ezebezian.

Banaka batzuk txitxiña be ekBa-dira emen dagoneko besiguabenak be...

EZKONTZA.—Deyetan dabiz ruaga'taŕ Jon eta Arteta'taŕ Elordi'taŕ Jon eta Uberuaga'taŕ tiñe be. Zorijonak biltzuoi.

IKIŦANESEN KANTAK.—Etzat antzekuenak, bai ba-dira, gortu-alian entzuten doguzanak, jaŕaŧu ezkero "azkatasun-eguzkiguk amatau be egingo dogu, aeta ara be ikusi be egin barik.

PERIJIA.—Azkenengo larunbatuan izan zan ileroko perijia. Idanez bestera, ezeban euŕirik egin amaŧutian, ĵ. l., ateŕi egin diŧuŕegunak zenbat dirian esango dojaŕgun euŕitsuak gitxijago ixan baietz?

PELOTA-TXAPELKETA.—Batzokijen Pelota-Batza'k eratuta ketea asiko da lasteŕ. Gure Eukija'ren ixenez jokatuko dabenak dira. Lenengo malakuak: Etxebaŕitea, Ituŕaspe eta Markes. Eta kuak: Iturbe, Osoro, Zumaran rieta. Ia ba, muŧilok, kiŕua atartsazuen.

UŔILAREN 25'KNA.—Egun gaŕija euzko-taŕontzat, geure buntasuna galdu gendualako. Laroge sei urte aurten ori jazo zala. Leŧeko eskubidia kendu euskuen egiteko eskubidia ez euskuen keori geuk emon dautsegu aŕezksaldu dogu geure burua.

Iñon erderia geure euzkeria ŧiago dogulako. Ezetz esan aŕen-zaliak garialako.

END

Irakurri EUZK